

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabideak funtsezkoak dira enpresa aurrera eramateko, gure kasuan giza baliabide aktibo nagusienak imaginazioa edo sormena izango dira.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak kontuan hartuz, gure produktua fabrikatzeko erabiltzen ditugun instalazioak izango dira. Lan egiteko erabiliko duguna fabrika bat izango da eta material berriak sortzeko eta aztertzeko laborategi bat egongo da. Honez gain, hortz garbigailua sortzeko erabiliko ditugun materialak eta gure proiektuaren berri emateko erabiliko ditugun ordenagailuak baita ere baliabide fisikotan sartuko dira.

Bestalde, finantza baliabideak gure aurrezkiak izango dira. Hasieratik asiko garenez gure enpresarekin, ez ditugu etekinak edukiko eta beraz, dena ondo ateratzen bada gure negozioa zabaltzeko aukera edukiko dugu eta aprobetxatzeko eskudiru adina lortuko dugu.

Baliabide intelektualei erreparatuz, denboraren poderioz sortzen eta garatzen joango dira. Gure produktuak patenteak eta egile-eskubideak edukiko ditu hasiera batetik, inork gure ideia kopia ez dezan. Gure produktuaren markaren izena DENTALIN izango da.